Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko apirilaren 9a, astelehena — 67 — Lunes, a 9 de abril de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRUNGO UDALA

### Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 14ko bilkuran 2018 ekitaldian Laguntza Bereziak emateko oinarriak onartu zituen.

Erabaki horretan xedatutakoa bete asmoz, argitara ematen dira irizpide horiek.

Irun, 2018ko apirilaren 3a.—Alkatea, eskurodetzaz, Gizarte Ongizateko A.O.T. (2330)

LAGUNTZA BEREZIAK EMATEA, 2018

*Oinarri arautzaileak*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Lehen Mailako Arretako aurrekontu programaren barruko Laguntza Bereziak emateko deialdia arautzea.

*2. Laguntza berezien izaera, helburua eta ezaugarriak.*

2.1. Laguntzen izaera eta laguntzak emateko araubidea.

Laguntza berezi hauek diru laguntzak dira, eta, horrenbestez, emango badira, kreditu nahikoa eta ondorio hauetarako egokia izan beharko da.

Laguntza hauek emateko araubidea zuzenean emateko araubidea izango da, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluarekin bat. Horrenbestez, ez dira egongo norgehiagokari eta laguntzen publizitateari buruzko arauen mendean, oinarri arautzaile hauen publizitatearen kalterik gabe.

2.2. Xedea.

Honako hauek lortzen laguntzea izango da laguntza hauen xedea:

1. Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak finkatzen dituen helburuak; bereziki, honako hauek.

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Horretarako, «hartzaile dituztenen gizarteratzea eta autonomia sustatzeko xedea izan behar dute prestazio ekonomikoek, eta lagungarri izan behar zaizkie gizarteratzeko prozesuan, edo, haien mendetasun edo babesgabetasun egoerek eragindako beharrizanei erantzun behar diete, aldi batez».

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

### Área de Bienestar Social, Educación y Juventud

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local en sesión de 14 de marzo de 2018 aprobó las bases para la concesión de ayudas especiales correspondientes al ejercicio 2018.

En cumplimiento de lo dispuesto en ese acuerdo, se hacen públicos los citados criterios.

Irun, a 3 de abril de 2018.—El alcalde, p.d. la T.A.G. de Bienestar Social. (2330)

CONCESIÓN DE AYUDAS ESPECIALES, 2018

*Bases reguladoras*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de la concesión de Ayudas Especiales que se contemplan en el programa presupuestario de Atención Primaria.

*2. Naturaleza, finalidad y características de las ayudas especiales.*

2.1. Naturaleza y régimen de concesión.

Las ayudas especiales son prestaciones económicas de naturaleza subvencional. Su concesión está, por tanto, condicionada a la existencia de crédito suficiente y adecuado a estos efectos.

Su régimen de concesión es el de «concesión directa», de conformidad con lo establecido en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. No se consideran sometidas, por tanto, a normas sobre concurrencia competitiva y publicidad de las ayudas, sin perjuicio de la publicidad de las presentes bases reguladoras.

2.2. Finalidad.

Tienen como finalidad el coadyuvar en la consecución de los objetivos definidos en:

1.º La Ley 12/2008, de Servicios Sociales. En especial los siguientes:

a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.

b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.

c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos.

d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Para ello, se regulan estas prestaciones económicas que «se orientarán a facilitar la integración social y la autonomía de sus preceptores, sirviéndoles de apoyo en su proceso de integración social o garantizando la cobertura, temporal de las necesidades derivadas de su situación de dependencia o desprotección.

EK\CV GAO-I-2018-02330

2. Adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legeak finkatzen dituen helburuak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko erregelamendua onartzen duen 202/2004 Dekretuak finkatzen dituen helburuak.

2.3. Ezaugarriak.

Osagarriak izan litezke beste sistema batzuen prestazioekiko, hala nola diru-sarrerak bermatzekoa, etxebizitzakoa, menpekotasunaren arretarakoa, osasunekoa edo hezkuntzakoa. Ildo horretatatik, puntualki emango dira edo hilabete batzuetarako soilik.

Horrenbestez, teknikarien balorazioaren ondoren, laguntza hauek eman ahalko dira laguntza-kontzeptu bakoitzerako DSBE edo GLL prestazioen zenbatekoa premiazko gastuari aurre egiteko behar adinakoa ez denean. Hori horrela, osagarriak liratekeen laguntza berezi hauek era honetako premietara zuzenduta egon daitezke: ohiko bizitokia izateko eta mantentzeko, edo mantenua, honelako egoerak gertatzen direnean: beste prestazio batzuk eteten direnean, beste laguntza batzuk jaso bitartean, edo erabiltzailearekin sinatutako Arreta Planak horrela eskatzen duenean.

Eskatzaileek eskubidez eskura ditzaketen beste laguntza edo prestazio ekonomiko batzuen subsidiarioak dira. Alegia, interesdunek eskubide hori erabili beharko dute, dela laguntzak eman aurretik, dela laguntzak ematearen beraren ondoriozko betebehar gisa laguntzak eman ondoren.

Enbargaezinak dira, Prozedura zibilaren Legearen 606.1. artikuluaren arabera.

2.4. Bateragarritasuna.

Laguntza emateko ebazpenak besterik xedatzen badu izan ezik, laguntza hauek bateragarriak dira beste prestazio ekonomiko mota batzuk hartzearekin.

Laguntza berezi hauen onuradunek beste prestazio ekonomiko mota batzuk hartzen badituzte, dagozkion prestazioak ebazten direnean eta hartzen dituztenean hartutako zenbatekoak Udalari itzultzeko betebeharra izango dute. Bereziki, aukera hau hartuko da kontuan: beste prestazio batzuen barruan mantentze eta etxebizitza gastuak ordaintzeko ematen diren laguntza berezien aurrerakinak (diru sarrerak bermatzeko errentarenak, gizarte larrialdietarako laguntzenak, etab.) eta prestazio hauek bateraezinak direla deklaratzea. Deklaratu egiten bada, laguntzak emateko proposamenak eta ebazpenak berariaz zehaztuko dute.

*3. Diruz lagunduko diren gastuak.*

Programak eta, bereziki, dokumentu honen eranskinak aipatzen dituen helburuak lortzeko egiten diren gastuak lagunduko dira diruz. Beharrizan egoera puntual edo aldi baterakoei erantzuteko gastuak ordaintzeko erabiliko dira prestazio hauek.

Diru-laguntza hauekin aurre egin ahalko zaie ekitaldia naturalaren barruaneta aurreko 24 hilabeteetan sortutako gastuei.

*4. Onuradunak.*

Eranskinak gastu mota bakoitzari buruz zehazten duenari kalte egin gabe, eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradun:

a) Erroldatzea: Oro har, eskaera egin aurretik eta diruz laguntzekoa den egitatearen aurretik, Irunen erroldatutako pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradun.

Salbuespen gisa, Irunen erroldatuta ez dauden baina noizean behin udalerrian bizi diren edo pasadizoan dauden pertsonak ere izan ahalko dira laguntza hauen onuradun.

2.º La Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

3.º Decreto 202/2004, de 19 de octubre, Reglamento de Sanidad Mortuoria del Pais Vasco.

2.3. Características.

Podrán tener carácter complementario respecto a las prestaciones de otros sistemas como el de garantía de ingresos, el de vivienda, el de atención a la dependencia, el sanitario o educativo. En este sentido, su concesión tendrá carácter puntual o duración limitada a unos meses.

Por lo tanto, previa valoración técnica, estas ayudas podrán concederse en casos en los que las cuantía de las prestaciones de RGI o AES para cada concepto de ayuda no sea suficiente para hacer frente al gasto de necesidad. En este sentido, estas ayudas excepcionales con carácter complementario podrán estar dirigidas a necesidades para el acceso y mantenimiento de la vivienda habitual, o manutención ante circunstancias tales como: la suspensión de otras prestaciones, durante el tiempo de espera a la percepción de otras ayudas o cuando el Plan de Atención personalizado firmado con la persona usuaria así lo requiera.

Tienen carácter subsidiario de otras ayudas o prestaciones de contenido económico a los que la persona solicitante pudiera tener derecho. En este sentido, las personas interesadas deberán hacer valer estos derechos, bien con carácter previo a la concesión, bien como obligación derivada de esta concesión.

Se considerarán que tienen carácter inembargable en atención a lo dispuesto en el artículo 606 apartado 1.º de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

2.4. Compatibilidades.

Salvo que en la resolución de concesión se especifique otra cosa, serán compatibles con la percepción de otras modalidades de prestaciones económicas.

Se considerará en particular la posibilidad de declarar la incompatibilidad de las ayudas especiales en concepto de gastos de manutención y vivienda que se configuren como adelantos de otras prestaciones (RGI,AES...) con estas prestaciones. En tal caso se determinará expresamente en la propuesta y en la resolución de concesión. Las personas beneficiarias de ayuda especial adquieren en estos casos la obligación de devolución al Ayuntamiento de las cantidades percibidas en el momento en que se resuelvan y perciban las prestaciones correspondientes.

*3. Gastos subvencionables.*

Se considera gasto subvencionable cualquiera que responda a los fines descritos para este programa y, en particular, los definidos en documento Anexo al presente. Estas prestaciones irán dirigidas a situaciones de necesidad de carácter puntual o temporal.

Con estas ayudas se podrá hacer frente a gastos devengados dentro del ejercicio natural y en los 24 meses anteriores.

*4. Personas beneficiarias.*

Podrán beneficiarse de estas ayudas las personas en quienes concurran los siguientes requisitos (sin perjuicio de las especificaciones que se contemplan en el Anexo para cada tipología de gasto):

a) Empadronamiento: Con carácter general, podrán beneficiarse de este tipo de ayudas las personas empadronadas en Irun con anterioridad a la solicitud y al hecho subvencionable.

Podrán también beneficiarse, de modo excepcional, personas que, no estando empadronadas, residan esporádicamente en el municipio de Irun o se encuentren en situación de tránsito.

EK\CV GAO-I-2018-02330

b) Adina: Adindunak edo adingabe emantzipatuak izan beharko dute onuradunek.

c) Egoera: Pertsona hauek izan ahalko dira laguntza hauen onuradun:

— Mendetasun egoeran egoteko arriskuan daudenak eta egoera horretan daudenak.

— Babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan daudenak eta egoera horretan daudenak.

— Beren bizikidetza unitateko kideen artean ahulezia egoeran dagoen pertsonaren bat dutenak (adingabeak, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeak, etab.).

— Bazterketa egoeran daudenak.

— Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak.

— Gizarte larrialdi batean daudenak.

— Adikzioak tratatzeko prozesu betean daudenak.

Eskatzailea laguntza hauek xedea diren zenbait kontzeptutan zehazten diren betekizunak ere bete beharko ditu.

d) Bete behar ez diren eskakizunak.

Diru laguntza hauen izaera kontuan izanik, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluarekin bat, onuradunek ez dituzte bete beharko eskakizun hauek:

— Indarreko xedapenek finkatzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

— Arauz xedatzen diren baldintzetan, diru laguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea eta aurrez hartutako prestazio ekonomikoak justifikatzea, haiek itzultzeari kalte egin gabe.

e) Egokitasuna.

Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 25.1.b) artikuluarekin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 9.4. artikuluarekin bat, oinarrizko gizarte zerbitzuetako erreferentziazko profesionalak balorazio eta agiri tekniko bat egingo ditu, prestazioa programa honen helburuak lortzeko egokia dela egiaztatzeko.

Prestazioaren egokitasuna neurtzeko, parametro hauek hartuko dira kontuan:

— Gastuaren premia eta presakotasuna.

— Bizikidetza unitatearen baliabide ekonomiko nahikorik eza gastuak ordaintzeko.

— Laguntza puntualaren eraginkortasuna beharrizan egoera konpontzen laguntzeko.

— Prestazioak emateko ekitate irizpidea. Laguntza hauek emateko aurrekontu funtsa mugatua dela-eta, baloratuko da zer-nolako egoeran dauden eskatzaileak onuradun izan daitezkeen beste pertsona batzuen aldean.

— Onuradunaren edo haren bizikidetza unitateko kide baten eta Irungo Udalaren arteko banakako arreta plan baten sinatzea, erreferentziazko gizarte langileak baloratu beharrekoa, egoera hauetan:

— Erroldatze soziala ematen denean.

— Aldi baterako laguntza bereziak (ez-puntualak) ematen direnean.

— Etxebizitza ordaintzeko laguntza bereziak ematen direnean, epe labur batean egoera berriz jazotzen bada (onuraduna etengabeki etxetik kanporatua bada).

— Beste egoera batzuetan, teknikariak egoerak baloratu ondoren.

b) Edad: Ser mayor de edad o menor emancipado.

c) Situación: Podrán beneficiarse de estas ayudas personas que se encuentren en alguna de estas situaciones:

— Riesgo o situación de dependencia.

— Riesgo o situación de desprotección.

— Situación de vulnerabilidad de alguno de los miembros de la unidad convivencial (menores, mujeres víctimas de violencia de género, etc.).

— Situación de exclusión.

— No disponer de medios económicos suficientes.

— Emergencia social.

— Proceso de tratamiento de adicciones.

La persona solicitante deberá cumplir los requisitos que de forma específica se contemplan para algunos de los conceptos a los que van dirigidos estas ayudas.

d) Exención de requisitos.

Teniendo en cuenta la naturaleza de estas subvenciones y conforme a lo previsto en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, se exime a las personas beneficiarias de la necesidad de cumplimiento de los siguientes requisitos:

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

— Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen. De la misma manera, nos se considerará requisito la justificación de prestaciones económicas percibidas con anterioridad, sin perjuicio de la obligación de reintegro.

e) Requisitos de idoneidad.

De conformidad con lo establecido en el artículo 25.1.b) de la Ley 12/2008, de Servicios Sociales, y artículo 9.4 del Decreto 15/2015, por el que se aprueba el Decreto de Cartera de Servicios Sociales, la idoneidad de la prestación para hacer frente a los fines de este programa será objeto de valoración y prescripción técnica de la persona profesional de referencia de los servicios sociales de base, que así lo acredite.

La idoneidad de la prestación se medirá en función de los siguientes parámetros:

— Necesidad y urgencia del gasto.

— Insuficiencia de los recursos económicos de la unidad convivencial para hacer frente a esos gastos.

— Eficacia de la ayuda puntual para contribuir a la solución de la situación de necesidad planteada.

— Criterio de equidad en la concesión de estas prestaciones, valorándose la situación de los y las solicitantes en relación a otros u otras posibles beneficiarias, por el carácter limitado del fondo presupuestario destinado a estas ayudas.

— Suscripción por parte de la persona beneficiaria u otro miembro de su unidad de convivencia con este ayuntamiento un Plan Individualizado de Atención (PIA), a valorar por la persona trabajadora social de referencia, en las siguientes situaciones:

— Situaciones de concesión de padrón social.

— Ayudas especiales temporales (no puntuales).

— En ayudas especiales destinadas al acceso de vivienda, en caso de que la situación se haya repetido en un espacio corto de tiempo (continuos desahucios).

— Y, otras situaciones previa valoración técnica.

EK\CV GAO-I-2018-02330

Laguntzak emateko edo ukatzeko, erreferentziazko gizarte langileak kontuan hartuko du banakako arreta plana sinatzea, baina plana sinatzeak edo ez sinatzeak ez du baldintzatuko laguntza ematea eta/edo mantentzea.

*5. Informazioa eta eskabideak.*

5.1. Informazioa.

Gizarte zerbitzuak erabiltzeko ereduarekin bat, Udaleko gizarte zerbitzuek emango dute laguntza berezien programa honi buruzko informazioa eta orientabidea.

Gainera, Udalaren webgunean argitaratuko dira oinarri hauek, www.irun.org helbidean, gardentasun atarian, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere.

5.2. Eskabideak.

Urteko edozein unetan formalizatu ahalko dira eskaerak.

Interesdunek berariaz prestatzen den inprimakian formalizatu beharko dute eskaera, eta eskabidea Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (San Martzial karrikako 1. zenbakian) aurkeztu, edo administrazio prozedura erkideari buruzko arauek onartzen duten beste edozein prozeduraren bidez.

Eskabidearekin batera, gizarte zerbitzuetako erreferentziazko profesionalak familia unitatearen egoera sozioekonomikoa eta laguntza erabiliz ordainduko den gastua baloratzeko beharrezkotzat duen informazio eta dokumentazioa aurkeztuko da.

Ikusten bada eskatzaileak aurkezten duen dokumentazioa osatu gabe dagoela edo ez dituela betetzen bete beharreko eskakizunak, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, akats formalak zuzentzeko edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio ez badu horrelakorik egiten eskaerari uko egiten diola joko dela eta eskabidea besterik gabe artxibatuko dela, indarrean dagoen araudiarekin bat.

Eskatzaileek baimena eman beharko diote Udalari, hark beharrezkotzat dituen datuak egiazta ditzan. Horrela, Udalak beharrezkoa den datu eta txosten oro eskatu ahalko die beste instituzio eta entitate publiko eta pribatu batzuei edo eskatzaileari berari.

Gastu jakin batzuk ordaintzeko laguntza bereziak ematen direnean (adibidez, hileta gastuak ordaintzeko laguntzak), horrelako eskaerak ofizioz tramitatu ahalko dira, onuradun edo erabiltzaileei aurrez baimena eskatu beharrik gabe.

*6. Instrukzioa eta ebazpen proposamena.*

Gizarte zerbitzuetako erreferentziazko profesionalak instruituko du prozedura. Ofizioz, datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatzeko egokiak iruditzen zaizkion jarduketak sustatuko ditu, eta, eskatzaileek laguntzak hartzeko eskakizunak betetzen dituzten egiaztatutakoan, dagokion ebazpen txosten edo proposamena formulatuko du.

Txosten hori nahitaezkoa eta ez-loteslea izango da, eta alkateari (edo dagokion ordezkaritzari) helaraziko zaio, bere iritzia eman dezan.

Espedienteak instruitzerakoan arin jokatzea eta instrukzioa ofizioz bultzatzea ziurtatzeko, laguntza bereziei dagokien tramitea egin ahalko da tramitatuak izateko eskakizunak betetzen dituzten baina formalki horrela aurkeztu ez diren eskaerekin.

*7. Ebazpena.*

Alkatetzak (edo dagokion ordezkaritzak) ebatziko ditu eskaerak, proposamena ikusita.

La firma del documento PIA será un aspecto a tener en cuenta por parte de la persona trabajadora social de referencia para la concesión o denegación de estas ayudas, sin constituir una obligación a la que se condicione la concesión y/o mantención de la misma.

*5. Información y solicitudes.*

5.1. Información:

De conformidad con el modelo de acceso a los servicios sociales, la información y orientación hacia este programa de ayudas especiales se realizará desde los Servicios Sociales municipales.

Las presentes bases estarán asimismo disponibles para su consulta en la web municipal (www.irun.org), (Portal de transparencia) siendo objeto de publicidad en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

5.2. Solicitud y documentación.

Las solicitudes podrán formalizarse en cualquier momento del año.

Las personas interesadas deberán formalizar su solicitud, en el impreso elaborado al efecto, mediante su presentación en el registro del Servicio de Atención a la Ciudadanía - SAC (C/ San Marcial, 1) o mediante cualquier otro procedimiento admitido por las normas de procedimiento administrativo común.

Se adjuntará a la misma la información y documentación que la profesional referente de los servicios sociales entienda necesaria para valorar la situación socio-económica de la unidad familiar y el gasto al que se destina la ayuda.

Cuando se comprobara, que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos, se requerirá a la persona interesada, para que en el plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la solicitud sin más trámite, de acuerdo con la normativa vigente.

Las personas solicitantes deberán asimismo autorizar al Ayuntamiento para la comprobación de los datos que considere necesarios, recabando cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas, o a la propia persona solicitante.

Podrán tramitarse de oficio, sin previa solicitud de la persona usuario para ayudas especiales en determinados conceptos como son para pago de gastos funerarios.

*6. Instrucción y propuesta de resolución.*

La instrucción del procedimiento corresponderá a la profesional referente de los servicios sociales, quien promoverá de oficio cuantas actuaciones estime pertinentes para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos y, una vez constatado el cumplimiento o no de los requisitos exigidos para la percepción de la ayuda, formulará el correspondiente informe-propuesta de resolución.

Este informe, que tendrá carácter preceptivo y no vinculante, será sometido a la consideración del Alcalde (ó Delegación correspondiente, en su caso).

En orden a asegurar la celeridad y el impulso de oficio en la instrucción de los expedientes, podrá darse trámite de ayudas especiales a aquellas solicitudes, pudiendo cumplir los requisitos para su tramitación, no se hubieran presentado formalmente como tales.

*7. Resolución.*

La Alcaldía (o Delegación correspondiente, en su caso), resolverá la solicitud a la vista de la propuesta realizada.

EK\CV GAO-I-2018-02330

Eskaera aurkezteak ez du emango diru laguntza hartzeko eskubiderik; alegia, hautazkoa izango da laguntza hauek ematea, diru laguntza oro ematea bezala.

Laguntzak emateko ebazpenak haien zenbatekoa, ordaintzeko modua eta baldintzak finkatuko ditu.

Laguntzak emateko ebazpenak ez dira argitaratuko, laguntzen zenbatekoa dena delakoa ere, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8.b) artikuluarekin bat.

Ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik kontatuta. Epe hori amaitzen denean ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunek ulertu ahal dute beraien eskaera ez dela baietsi administrazioaren isiltasunagatik.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo, bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean aurkaratu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hori guztia, bidezkotzat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.

*8. Zenbatekoa.*

Laguntzaren guztizko zenbatekoa inola ere ezingo da izan onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, ez bera bakarrik ez beste administrazio publiko edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen diru laguntza edo laguntzak batuta.

Erreferentziazko gehieneko zenbatekoak finkatuko dira eranskinak diruz lagunduko diren gastuen barruan aipatzen duen azalpen bakoitzerako.

Ebazpenak besterik xedatzen ez badu, zenbateko jakin bat emango da; alegia, ez da emango jardueraren kostuaren ehuneko edo zati bat. Beraz, osorik ordainduko da laguntza; betiere, finantzatzen den zenbatekoa justifikatzen bada gutxienez.

*9. Ordainketa.*

Banku bidezko transferentzia baten bitartez ordainduko dira diru laguntzak, onuradunen titulartasuneko kontuetan.

Era berean, laguntzaren titularrez beste hirugarrenei ordaindu ahalko zaizkie laguntzak; betiere, titularrek baimena ematen badute.

Aurretiko ordainketak egin ahalko dira, eta gastuak gero justifikatu.

Inola ere ez da bermerik eskatuko laguntza hauek ordaintzeko.

Ordainketa presakoa dela xedatu ahalko du ebazpenak. Xedatu egiten bada, udal zerbitzuek lehentasunez bideratu beharko dute.

*10. Onuradunen betebeharrak.*

Betebehar hauek izango dituzte laguntza hauen onuradunek:

— Zertarako ematen den diru laguntza, horretarako soilik erabiltzea haren zenbatekoa eta laguntzak emateko ebazpenak zehazten duen moduan justifikatzea gastuak.

— Aldaketarik badago diru laguntza emateko kontuan hartzen diren zirkunstantzia pertsonal eta ekonomikoetan, hura jakinaraztea.

— Udalaren egiaztapen jardunbideei men egitea.

— Gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzea eta tramitatzea laguntza hori betetzeko eskakizunak betetzen badituzte.

La presentación de la solicitud no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional, inherente a toda subvención.

La resolución por la que se conceda la ayuda establecerá su cuantía, forma de pago y condiciones.

Las resoluciones de concesión no serán objeto de publicidad, sea cual sea su cuantía, ello de conformidad con lo establecido en el artículo 20.8.b) de la Ley General de Subvenciones.

El plazo máximo para resolver será de tres meses a contar desde la presentación de la solicitud. El vencimiento de este plazo sin haberse notificado la resolución legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

*8. Cuantía.*

El importe total de la ayuda en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros Entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria.

Se establecen cuantías máximas de referencia para cada uno de los conceptos de gasto subvencionable previstos en el anexo.

Salvo que en la resolución se especifique otra cosa, la cuantía concedida se entenderá como un importe cierto, sin referencia a un porcentaje o fracción del coste de la actividad, por lo que se abonará íntegramente siempre que la justificación alcance, como mínimo, la cantidad financiada.

*9. Pago.*

El abono de las subvenciones se realizará mediante transferencia bancaria, a una cuenta de titularidad de la persona beneficiaria.

Podrá asimismo determinarse el pago a terceras personas diferentes a quien sea titular de la ayuda en los casos en que así lo autorice la persona titular.

Podrán establecerse pagos adelantados, pendientes de justificar.

No se exigirá en ningún caso garantías para el pago de estas ayudas.

Podrá determinarse en la resolución el carácter urgente del pago, en cuyo caso requerirá despacho preferente por parte de los servicios municipales.

*10. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las personas beneficiarias de estas ayudas quedarán obligadas a:

— Destinar el importe de la ayuda únicamente a la finalidad para la que ha sido concedida, y justificarlo en la manera que se determine en la resolución de concesión.

— Comunicar cualquier variación en las circunstancias personales y económicas tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda.

— Someterse a las actuaciones de comprobación municipales.

— La persona beneficiaria tendrá la obligación de solicitar y tramitar AES siempre que cumpliera requisitos para la percepción de esa ayuda.

EK\CV GAO-I-2018-02330

— Laguntzak emateko ebazpenak laguntza hartzeko finkatzen dituen gainerako betebehar edo baldintzak betetzea.

*11. Gastuaren justifikazioa.*

Onuradunek laguntza hauen erabilera justifikatu beharko dute, eta, horretarako, gastuen ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte, salbu eta laguntzak emateko ebazpenak xedatzen badu ez dela beharrezkoa gastua justifikatzea, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30.7. artikuluarekin bat.

Laguntza emateko ebazpenak finkatuko ditu gastua justifikatzeko modua eta epeak; betiere, laguntza eman aurretik justifikatu ez badira.

Alde horretatik, gastua justifikatutzat hartuko da, eta, horrenbestez, ez da beharrezkoa izango ezer egitea baldin eta zerbitzu edo hornigaiengatiko zorrak ordaintzeko ematen badira laguntzak, eskatzaileek baimena ematen badute eta pertsona edo entitate hartzekodunari ordaintzen bazaio zuzenean.

Garraioa ordaintzeko laguntzei buruzko atalean deskribatzen den moduan justifikatuko dira laguntza horiek.

*12. Atzera egitea eta uko egitea.*

Noiznahi, eskaera aurkeztu izanari edo laguntza kobratzeari uko egin ahalko diote eskatzaileek, idatziz eta berariaz.

*13. Ez betetzea.*

Baldin eta oinarri hauek edo diru laguntzak emateko ebazpenak finkatzen duen betebeharren bat betetzen ez bada, laguntza berrikusiko da, eta, dagokionean, emandako zenbatekoa ezeztatuko, murriztuko edo itzularaziko da.

Era berean, onuradunak hartuko ditu bere gain udal arauak ez betetzearen ondorioak.

*14. Araubide juridikoa.*

Oinarri hauek berariaz arautzen ez duten gaietan, diru laguntzei buruzko araudia aplikatuko da; zehazki, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Subsidiarioki, administrazio prozedura orokorrari eta tokiko araubideari buruzko gainerako xedapenak aplikatuko dira.

*15. Finantzaketa.*

Laguntza bereziek 150.000 €ko dotazioa dute «Familientzako diru-laguntzak» aurrekontu aplikazioaren kargura 1.0410. 480.01.231.60. 2018.

Gastua baimentzearen ebazpenetik sortutako betebeharrei aurre egiteko esleitu den zenbateko osoa aldatu ahal izango da eskaeren kopuruaren bilakaera kontuan hartuz, betiere indarrean dagoen ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuko baliabideen arabera.

— Cumplir cualquier otra obligación que la resolución de concesión establezca como condición para la percepción de la ayuda.

*11. Justificación del gasto.*

Las personas beneficiarias deberán justificar el destino de estas ayudas mediante la presentación de los correspondientes justificantes de gasto, salvo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 30.7 de la Ley General de Subvenciones, la resolución por la que se establezca la ayuda determine la innecesariedad de la justificación.

La resolución por la que se conceda la ayuda establecerá la forma y plazos en los que ha de justificarse el gasto, cuando éste no haya sido justificado con anterioridad a la concesión de la ayuda.

Se entenderá justificado el gasto y por tanto, no procederá actuación alguna en este sentido, cuando se trate de ayudas para pago de deudas por servicios o suministros que, con autorización de la persona solicitante, sean abonadas directamente a la persona o entidad acreedor o acreedora.

Las ayudas para transporte quedarán justificadas en la forma descrita en el apartado específico para este concepto.

*12. Desistimiento y renuncia.*

Las personas solicitantes podrán, en cualquier momento, desistir de su solicitud o renunciar al cobro de la subvención. La renuncia deberá comunicarse de manera escrita y expresa.

*13. Incumplimiento.*

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

El beneficiario asumirá, asimismo, las consecuencias citadas en caso de incumplimiento de normas municipales.

*14. Régimen jurídico.*

En lo no previsto expresamente en estas Bases, será de aplicación la normativa sobre subvenciones, concretamente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio. Subsidiariamente se aplicarán las demás disposiciones sobre procedimiento administrativo general y régimen local.

*15. Financiación.*

Las ayudas especiales están dotadas con 150.000,00 € consignados en la partida presupuestaria «Ayudas a familias Asistencia Social Primaria» 1.0410.480.01.231.60. 2018.

El importe global consignado para hacer frente a las obligaciones derivadas de la resolución de autorización de gasto podrá ser modificado teniendo en cuenta la evolución del número de solicitudes, siempre en función de las disponibilidades presupuestarias del ejercicio económico en vigor, sin que resulte necesario darle publicidad.

EK\CV GAO-I-2018-02330

ERANSKINA
LAGUNTZA BEREZIEN BIDEZ DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK 2018

| *Diruz lagunduko diren gastuak* | *Berariazko baldintzak eta Erreferentziazko gehieneko zenbatekoak* |
|---|---|
| 1. OSASUN GASTUAK<br>→ Sendagaiak<br>→ Odontologia | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Odontologia: Gizarte larrialdietarako laguntzak hartzeko baldintzak ez betetzea (oso egoera ezohikoak, gizarte langileak baloratu beharrekoak) |
| | ZENBATEKOA<br>- Sendagaiak: zehaztugabea |
| 2. JOAN-ETORRIAK BESTE UDALERRI BATERA<br>→ Arauzko bisitak adingabeen babesgabetasun egoeretan<br>→ Tratamendu mediko jarraituak<br>→ Elkarguneak<br>→ Adikzioen errehabilitazio zentroak<br>→ Beste arrazoi batzuk, aurretik balorazio teknikoa eginda | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Garraio gastuak ordaintzeko diru laguntzarik ez izatea<br>- Adikzioen errehabilitazio zentroetara joateko gastuak ordaintzeko berariazko baldintzak<br>Onuradunen zein lagundu behar dieten senide edo arduradunen gastuak ordaintzeko erabili ahalko dira laguntzak.<br>Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak<br>* Irungo udal barrutian erroldatuta egotea<br>* Mendekotasun arazo bat izatea eta errehabilitazio programa bat hasi izana zentro espezializatu batean<br>Eskatzaileek errehabilitazio programan parte hartzen duten bitartean egongo dira indarrean laguntzak, eta ez da izango beharrezkoa urtero berritzea. Zenbatekoa aldatu ahalko da, ordea, baldin eta programaren barruko fasea edo ordaindu beharreko garraio gastuen zenbatekoa aldatzen bada.<br>Errehabilitazio programak bi edo hiru urte irauten du, eta, oro har, hiru fasetan banatu ohi da:<br>* Harrera (erregimen anbulatorioa)<br>* Komunitate terapeutikoa (barnetegi erregimena)<br>* Birgizarteratzea (erdi barnetegiko erregimena)<br>Lehenengo faseak 8-10 hilabete iraun ohi du, eta, printzipioz, garraio gastuak orduan dira handienak, eskatzaileek egunero joan behar baitute errehabilitazio zentrora eta, askotan, hilabete batzuetan, senide edo arduradunen batekin joan behar baitute.<br>Udalak hileroko ordainketa egingo badu, onuradunek egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte hilero, tratamendua egiten jarraitzen dutela egiaztatzeko.<br>Zentrora hiru (3) hilabetez jarraian justifikatzen duen arrazoirik gabe joan gabe egonez gero, utzi egiten dela ulertuko da, eta hasiera emango zaio laguntza iraungitzeko izapideari. |
| | ZENBATEKOA<br>- Adikzioen errehabilitazio zentroak<br>Joan-etorriak Donostiara edo lurraldeko beste herri batzuetara egin behar direnean, bidaien zenbatekoa RENFEko abonamenduen edo MUGI txartelaren kostuen arabera kalkulatuko da,<br>eskatzaileak bakarrik joan daitezkeen ala ez kontuan izanik; alde horretatik, tratamendu zentroak ebatziko du horretarako behar bezain arduratsuak diren.<br>Edonola ere, eskatzaileek nahi duten garraiobidea erabili ahalko dute (autoa, etab.), eta ez dute justifikatu beharko zer garraiobide erabili duten; besterik gabe, dagokion zentrora joan direla. Bestalde, eskatzaileen benetako garraio gastuak ordaintzeko adinakoak izango dira laguntzak; izan ere, batzuetan, erabiltzaileen neurrira prestatzen dira programak, eta, horrelakoetan, banaka egin behar izaten dira kalkuluak, programaren fase bakoitzeko garraio gastuak kontuan hartuta: adibidez, komunitate terapeutikoko fasean, baliteke garraio gastuak ordaintzeko laguntza eman behar izatea, eskatzaileak beste zentro batera joateko; harrera fasean, litekeena da gastuen zenbatekoa aldatzea, eskatzaileak harrera faseko zer hilabetetan dauden, norbaitek lagunduta ibili behar duten ala ez kontuan izanik; etab.<br>- Beste arrazoi batzuk: zehaztugabea |

| *Diruz lagunduko diren gastuak* | *Berariazko baldintzak eta Erreferentziazko gehieneko zenbatekoak* |
|---|---|
| 3. PREMIAZKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Eskatzaileak ohiko etxebizitzatik kaleratzeko prozesu betean egotea, kalte psikologiko larrien sintomak izatea, larrialdi egoera batean egotea, katastrofe baten biktima izan izana, bizipen traumatikoak izatea edo gizarte langileak baloratu beharreko beste egoera batean egotea<br>- Profesionalak psikologiako prestakuntza izatea eta Irungo Udal barrutian lan egitea –interesdunek aukeratuko dute–<br>Saio kopurua jakina izango da, eta, gero, osasun zerbitzu normalizatuak arduratuko dira interesdunez.<br>- Eskatzaileek baliabide ekonomiko urriak izatea, estutasun ekonomikoko egoeran egotea |
| | ZENBATEKOA: Zehaztugabea |
| 4. ETXEBIZITZA ESKURATZEA ETA MANTENTZEA | Azpiazalpen bakoitzaren inguruan finkatzen direnak |
| 4.a) Etxebizitza alokatzea: kontratua formalizatzeko gastuak (agentzia, fidantza, lehenengo hilabetea, bankuaren abalaren formalizazioa…) | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Eskatzailea egoera hauetakoren batean egotea<br>* Epaileen kaleratze agindu bat izatea<br>* Bizilekuz aldatzea, ostatu batetik etxebizitza batera<br>* Alokatzen den etxebizitzaren prezioa askoz txikiagoa izatea aurrekoarena baino<br>* Etxebizitza galdu izana hipoteka edo alokairua ezin ordaintzeagatik<br>* Etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak eskasak izatea<br>- Azken bost urteetan azalpen honengatiko laguntzarik hartu ez izana, salbu eta gizarte langileak baloratu beharreko ezohiko kasuetan<br>- Oro har, etxebizitzaren jabearen dokumentu bat aurkeztea (edo epaitegikoa), eskatzailea etxebizitzatik atera dela egiaztatzeko<br>Larrialdi egoeretan (kaleratze agindu bat edo etxebizitza berehala galtzeko arriskua dagoenean), baldin eta eskatzaileak gizarte larrialdietarako laguntza hartzeko eskakizunak betetzen baditu (etxebizitza eskuratzeko lehenengo gastuak ordaintzeko laguntza), laguntza berezi bat izapidetu ahalko da hasiera batean, premiazkoa; horrelakoetan, laguntza berezia hartuko badu, gizarte larrialdietarako laguntza eskatu beharko du onuradunak, azalpen honetarako, eta ebazpena emateko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu, baita premiazko laguntza bereziaren zenbatekoa itzuli ere gizarte larrialdietarako laguntza hartzeko eskubidea onartzen bazaio. Konpromiso horiek betetzen ez baditu, laguntza berezia ezeztatu ahalko da, eta itzultzeko eskatu. |
| | ZENBATEKOA<br>- 2.500 €<br>- Ohiz kanpoko egoeretan (eskatzailea larrialdietarako udal etxebizitza batetik irteten denean, kaleratu egiten dutenean), handiagoa izan ahalko da zenbateko hori. |
| 4.b) Etxebizitza mantentzeko gastuak (elektrizitatea, erkidegoa, gasa, ura) | ZENBATEKOA: Kasuan-kasuan baloratu beharrekoa |
| 4.c) Ohiko etxebizitzaren hipoteka kreditua edo alokairua ez ordaintzeagatiko zorrak | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Gizarte langilearen balorazioaren arabera laguntzak etxebizitza mantentzeko balioa izatea<br>Larrialdi egoeretan (etxebizitza berehala galtzeko arriskua dagoenean), baldin eta eskatzaileak gizarte larrialdietarako laguntza hartzeko eskakizunak betetzen baditu (etxebizitza eskuratzeko lehenengo gastuak ordaintzeko laguntza), laguntza berezi bat izapidetu ahalko da hasiera batean, premiazkoa; horrelakoetan, laguntza berezia hartuko badu, gizarte larrialdietarako laguntza eskatu beharko du onuradunak, azalpen honetarako, eta ebazpena emateko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu, baita premiazko laguntza bereziaren zenbatekoa itzuli ere gizarte larrialdietarako laguntza hartzeko eskubidea onartzen bazaio. Konpromiso horiek betetzen ez baditu, laguntza berezia ezeztatu ahalko da, eta itzultzeko eskatu. |
| | ZENBATEKOA : 4.000€ |

EK\CV GAO-I-2018-02330

| *Diruz lagunduko diren gastuak* | *Berariazko baldintzak eta Erreferentziazko gehieneko zenbatekoak* |
|---|---|
| 4.d) Ostatua, apopilo etxea, koerrentamendua, azpialokairua edo hipoteka kreditua ordaintzeko gastuak (hileroko laguntza) | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Ezin ordaintzeagatik, eskatzaileek oso-oso baliabide ekonomiko urriak izatea edo ohiko etxebizitza galtzeko arrisku larrian egotea<br>Diru sarrerak bermatzeko errenta eskatu dutenek, prestazio hori hartu aurretik, laguntza berezi bat hartu ahalko dute, ohiz kanpoko egoeretan, balorazio teknikoa egin ondoren. Diru sarrerak bermatzeko errenta hartzeko eskaera ebazten denean eta prestazioak hartzen direnean, litekeena da ordura arte hartutako zenbatekoak Udalari itzultzeko betebeharra deklaratzea. |
| | ZENBATEKOA<br>- Eskatzaileak edo familiak diru sarrerak bermatzeko errenta edo antzeko diru sarrerak hartzen baditu beste iturri batzuetatik, 250 € gehienez ere hilean, sei hilabetez gehienez ere<br>- Eskatzaileak edo familiak ez badu diru sarrerarik, 250 € baino gehiago ere hilean, sei hilabetez gehienez ere<br>- Ezohiko egoeretan (abal emaile izateagatik etxebizitza galtzeko arriskuan dauden adinekoen kasuan), 250 € gehienez ere hilean, sei hilabetez gehienez ere |
| 4.e) Ondasun higiezinen gaineko zerga eta/edo etxebizitzaren gainbalioa ordaintzeko gastuak | Laguntza emateko, egoera baloratu beharko da aurrez.<br>Eskatzailea ohiko etxebizitzatik kanporatu duten egoeretan eman ahalko da laguntza. |
| 5. PRESTAKUNTZA ARAUTUA ORDAINTZEKO LAGUNTZAK | Gizarte langileak egoki baderitzo kasuan kasuko gizarteratze ibilbidea kontuan izanik, prestakuntza jarduerak egiteko laguntzak emango dira, onuradunei gizarteratzen eta/edo lan munduan sartzen laguntzeko. |
| 6. UDAL ZERBITZUETARAKO LAGUNTZA( ludoteka,txiki-lab, udaleku irekiak, gaztelekuko ekintzak..) | Pertsonek egoera honetan egon beharko dute: ahultasun ekonomikoko egoera berezian egon eta udalaren esku-hartze sozialeko programetakoren batean parte hartu behar dute edo arrazoi humanitarioengatik (errefuxiatuak) aintzat hartzen den egoera berezian egon. |
| 7. EHORZKETA ETA ERRAUSKETA GASTUAK | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>Onuradunek ondare ekonomikorik ez izatea, ezta haiek bere gain har ditzakeen seniderik ere |
| 8. DOKUMENTUAK KUDEATZEKO/TRAMITATZEKO GASTUAK | Prestazio ekonomikoak hartzeko aurkeztu beharreko dokumentuak kudeatzeko/tramitatzeko emango dira laguntzak. |
| 9. MANTENUA | BERARIAZKO BALDINTZAK<br>- Beste prestazio ekonomiko batzuk hartzeko aukerarik ez izatea eta beharrizana puntuala eta denboran mugatua izatea –beste laguntza mota bat formalizatu ahal den bitartean hartu ahalko da laguntza hau–<br>- Eskatzaileari beste prestazio motaren bat badagokie (diru sarrerak bermatzeko errenta edo beste bat), beren eskubideak erabiltzea<br>Diru sarrerak bermatzeko errenta eskatu dutenek, prestazio hori hartu aurretik, laguntza berezi bat hartu ahalko dute, ohiz kanpoko egoeretan, balorazio teknikoa egin ondoren. Diru sarrerak bermatzeko errenta hartzeko eskaera ebazten denean eta prestazioak hartzen direnean, litekeena da ordura arte hartutako zenbatekoak Udalari itzultzeko betebeharra deklaratzea.<br>Salbuespen gisa, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeek laguntza hartu ahalko dute baldin eta diru sarrerak bermatzeko errenta hartzeko zain badaude edo Eusko Jaurlaritzak haien egoeran dauden emakumeei ematen dien laguntza hartzeko eskubiderik ez badute (edo denbora asko itxaron behar badute laguntza hartzeko). |
| | ZENBATEKOA: 400 € hilean |

ANEXO
GASTOS SUBVENCIONABLES MEDIANTE AYUDAS ESPECIALES 2018

<table>
<tr><th>Gastos subvencionables</th><th>Condiciones específicas y<br>cuantías máximas de referencia</th></tr>
<tr><td rowspan="2">1.- GASTOS SANITARIOS:<br>→Compra de medicamentos<br>→Odontología</td><td>CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>—Odontología: en situaciones en las que no se cumplan requisitos de AES ( situaciones muy excepcionales a valorar por la t.s. )</td></tr>
<tr><td>CUANTÍA:<br>—Compra de medicamentos: No se determina</td></tr>
<tr><td rowspan="2">2.- DESPLAZAMIENTO A OTRA POBLACIÓN.<br>→Visitas reguladas en situaciones de desprotección de menores.<br>→Tratamientos médicos continuados fuera del municipio.<br>→Asistencia a puntos de Encuentro.<br>→Asistencia a centros rehabilitadores de adicciones<br>→Desplazamientos por otras causas, previa valoración técnica.</td><td>CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>—Quien solicite la ayuda no deberá tener acceso al transporte subvencionado.<br>—Condiciones especiales para asistencia a centros rehabilitadores de adicciones:<br>Se destinan a cubrir los gastos ocasionados por los desplazamientos a estos Centros, tanto de la persona beneficiaria como de familiares-responsables que deban acompañarla al centro, cuando la primera no pueda hacerlo sola.<br>Los requisitos que ha de cumplir la persona solicitante son los siguientes:<br>* Estar empadronada en el término municipal de Irun.<br>* Padecer una dependencia y haber comenzado un programa de rehabilitación en un centro especializado que ocasione a la persona solicitante un gasto de desplazamiento a la hora de acudir al mismo.<br>Una vez concedida la ayuda, ésta tendrá vigencia mientras la persona solicitante siga acudiendo al programa rehabilitador, no debiendo ser renovada anualmente. No obstante, su importe podrá ser modificado si varía la fase del programa o la cuantía de las necesidades de transporte.<br>El programa rehabilitador puede durar entre dos y tres años, y generalmente comprende tres fases distintas:<br>* Una primera fase de Acogida (en régimen ambulatorio)<br>* Otra de Comunidad Terapéutica (en régimen de internado)<br>* Por último una de Reinserción (en régimen de semi-internado).<br>Sería en la primera fase (Acogida) donde en principio la persona adicta tendría unos gastos de transporte mayores, dado que habría de trasladarse diariamente al Centro Rehabilitador, debiendo en numerosos casos hacerlo acompañada por familiar-responsable durante algunos meses (esta primera fase suele durar unos 8 o 10 meses).<br>Las personas beneficiarias de estas ayudas para transporte deberán aportar mensualmente los justificantes de continuar el tratamiento en los Centros correspondientes, para que el Ayuntamiento realice el pago de la ayuda mensual.<br>En caso de no acudir al centro durante 3 meses consecutivos sin motivo que lo justifique, se entenderá como abandono, por lo que se procederá a iniciar los trámites para la extinción de la ayuda.</td></tr>
<tr><td>CUANTÍA:<br>—Para asistencia a centros rehabilitadores de adicciones:<br>Cuando los desplazamientos deban realizarse a San Sebastián u otros municipios de la provincia, el importe de éstos se calculará en base a los costes de los abonos de RENFE o tarjeta MUGI, necesarios para cubrir las necesidades de transporte, cuyo número podrá variar en función de si la persona solicitante tiene o no responsabilidad para viajar sola, responsabilidad que será fijada por el Centro de Tratamiento. No obstante, la persona solicitante puede utilizar el medio de transporte que prefiera para realizar los desplazamientos (coche, etc.), no teniendo que justificar cuál ha sido dicho medio de transporte, sino tan sólo que ha acudido al Centro correspondiente. Por otro lado, la ayuda de transporte cubrirá los gastos de transporte reales de la persona solicitante, dado que en algunos casos se trata de programas hechos a medida de la persona destinataria, debiendo en estos casos hacerse cálculos individualizados teniendo en cuenta los costes del traslado en las distintas fases del programa (ej.: puede ser necesaria la ayuda de transporte en la fase de Comunidad Terapéutica, al tener la persona solicitante que salir de la misma para trasladarse a otro Centro; o puede variar según el mes de la fase de Acogida en el que se encuentre, en función si ha de desplazarse acompañada o no, etc.)<br>—Para otros desplazamientos: No se determina</td></tr>
</table>

| *Gastos subvencionables* | *Condiciones específicas y cuantías máximas de referencia* |
|---|---|
| 3.- ATENCIÓN PSICOLÓGICA URGENTE | CONDICIONES ESPECÍFICAS<br>—Destinado a estas situaciones: personas inmersas en un proceso de desahucio de su vivienda habitual, si se detectaran síntomas de una afectación psicológica importante, situaciones de emergencia, catástrofes, vivencias traumáticas y otras situaciones a valorar por la trabajadora social.<br>—Profesional con formación en psicología, ubicado en el municipio de Irun, a elección de la persona interesada.<br>—La atención consistirá en un número determinado de sesiones, hasta la posterior atención del interesado por parte de servicios de salud normalizados.<br>El solicitante deber encontrarse en una situación de precariedad económica. |
| | Cuantía: No se determina |
| 4.- ACCESO Y PERMANENCIA EN VIVIENDA: | Las que se establecen para cada subconcepto. |
| 4.a) Acceso a vivienda en alquiler: Gastos asociados a la formalización de contrato (gastos de agencia, meses de fianza, pago de primer mes, gastos de formalización de aval bancario, etc.). | CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>- Situaciones:<br>*Situaciones en las que exista una orden judicial de desahucio<br>*Cambio de alojamiento de pensión a vivienda.<br>*Tratarse de una nueva vivienda en alquiler con un precio considerablemente más bajo que el de la vivienda de origen.<br>*Pérdida de vivienda por imposibilidad de hacer frente al pago de la hipoteca/alquiler<br>*Condiciones de habitabilidad deficitaria en la vivienda.<br><br>- No deberá haber percibido ayuda por este mismo concepto en los últimos 5 años (salvo situaciones excepcionales a valorar por la trabajadora social).<br><br>- Con carácter general, será necesario aportar documento del propietario de la vivienda en el que confirme la salida de la vivienda ( o documento judicial).<br><br>- En situaciones de urgencia en las que exista una Orden de desahucio o riesgo inminente de pérdida de vivienda, y si el solicitante cumple los requisitos para percibir AES ( en concepto de pago de primeros gastos para el acceso a vivienda), podrá tramitarse inicialmente una Ayuda Especial con carácter de urgencia. En este caso, la ayuda especial estará condicionada a la obligación, por parte de la persona beneficiaria, de solicitar Ayuda de Emergencia Social por este concepto, y a presentar toda la documentación necesaria para su resolución, así como al reintegro de la ayuda especial a cargo de la ayuda de emergencia social en caso de que sea reconocida ésta última. El incumplimiento de estos compromisos podrá dar lugar a la anulación de la ayuda especial y reclamación de reintegro. |
| | CUANTÍA:<br>- 2.500 €.<br>- En situaciones excepcionales dicha cantidad podría superarse (salida de vivienda de emergencia municipal, situación de desahucio). |
| c) Gastos de vivienda, mantenimiento (pago de recibos de gasto de electricidad, comunidad, gas, agua. | Cuantía: A valorar en cada situación. |
| 4.d) Deudas por impago de alquiler o crédito hipotecario de la vivienda habitual. | CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>- Si con ello se valora que se pueda mantener el alojamiento en esa vivienda<br>- En situaciones de urgencia en las que exista un riesgo inminente de perdida de vivienda, y si el solicitante cumple los requisitos para percibir AES ( en concepto de pago de primeros gastos para el acceso a vivienda), podrá tramitarse inicialmente una Ayuda Especial con carácter de urgencia. En este caso, la ayuda especial estará condicionada a la obligación, por parte de la persona beneficiaria, de solicitar Ayuda de Emergencia Social por este concepto, y a presentar toda la documentación necesaria para su resolución, así como al reintegro de la ayuda especial a cargo de la ayuda de emergencia social en caso de que sea reconocida ésta última. El incumplimiento de estos compromisos podrá dar lugar a la anulación de la ayuda especial y reclamación de reintegro. |
| | CUANTÍA:<br>4.000 €. |

EK\CV GAO-I-2018-02330

| *Gastos subvencionables* | *Condiciones específicas y cuantías máximas de referencia* |
|---|---|
| 4.e) Pago de alquiler hospedaje / pupilaje / coarrendamiento / subarriendo o crédito hipotecario (ayuda periódica mensual) | CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>Situaciones extremas de precariedad económica o riesgo de perdida de la vivienda habitual por imposibilidad de pago.<br>En caso de personas que hayan cursado solicitud de RGI y previa a la percepción de esta prestación, podrán percibir ayuda especial por este concepto, en situaciones excepcionales y previa valoración técnica. Existe la posibilidad de declarar la obligación de devolución al ayuntamiento, las cantidades percibidas en el momento en que se resuelva y perciban las prestaciones de RGI |
| | CUANTÍA:<br>- Si la persona/ familia percibe RGI u obtiene ingresos similares por otras fuentes: límite de 250 € mensuales. Tiempo límite: 6 meses.<br>- Si la persona/familia no dispone de ingresos: la ayuda a percibir podría ser superior a 250€/mes. Tiempo límite: 6 meses.<br>Situaciones excepcionales a tener en cuenta para este concepto de ayuda: Personas mayores con riesgo de perder su vivienda por ejercer como avalistas.<br>Cantidad máxima 250€ mensuales.<br>Tiempo Límite: 6 meses. |
| 4.f) Gastos en concepto de IBI y/o Plusvalia de la vivienda. | Se podrá tramitar, previa valoración de la situación, ayuda para el pago de IBI o los gastos de plusvalía de la vivienda.<br>Estas ayudas podrán concederse en situaciones en los que se ha producido un desahucio de la vivienda habitual. |
| 5.- AYUDAS PARA FORMACION NO REGLADA | Se tramitarán ayudas, de cara a facilitar la incorporación social/ laboral de personas para la realización de actividades formativas, cuando ello se valore adecuado por la trabajadora social según el itinerario de inserción en cada caso. |
| 6. AYUDAS PARA EL ACCESO A SERVICIOS MUNICIPALES (ludoteka, TxikiLab, colonias abiertas, actividades de Gazteleku..) | Las personas deberán encontrarse: en una situación de especial vulnerabilidad económica y participar en algunos de los programas de intervención social municipal o encontrase en una situación especial y que por razones humanitarias se valore ( personas refugiadas) |
| 7.- GASTOS FUNERARIOS: enterramiento o incineración | CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>Personas sin patrimonio económico, y que no cuenten con familiares que se pudieran hacer cargo de los mismos |
| 8.-GASTOS PARA LA GESTION/ TRAMITACIÓN DOCUMENTOS. | Ayuda destinada a hacer frente al gasto en la gestión/ tramitación de documentos exigidos para la percepción de prestaciones económicas. |
| 9.- MANUTENCIÓN | CONDICIONES ESPECÍFICAS:<br>1. Personas que no puedan acceder a otras prestaciones económicas, siempre que esta necesidad sea de carácter puntual, limitada en el tiempo y hasta que se pudieran formalizar otro tipo de ayudas.<br>Deberá previamente hacer valer sus derechos en caso de que pudiera corresponderles otro tipo de prestaciones (Renta de Garantía de Ingresos u otras ).<br>En caso de personas que hayan cursado solicitud de RGI y previa a la percepción de esta prestación, podrán percibir ayuda especial por este concepto, en situaciones excepcionales y previa valoración técnica. Existe la posibilidad de declarar la obligación de devolución al ayuntamiento, las cantidades percibidas en el momento en que se resuelva y perciban las prestaciones de RGI.<br>Se podrá contemplar como excepción en este punto mujeres víctimas de violencia de género que estén a la espera de percibir la Renta de Garantía de Ingresos o que no les corresponda la ayuda económica que Gobierno Vasco contempla para estas situaciones (o pudieran tardar en percibirla). |
| | Cuantía:<br>400€ mensuales |

EK\CV GAO-I-2018-02330